

2004 – 2014

Diez años de memoria y reivindicación
Hamar urte oroimena eta aldarrikapenak uztartzen

Homenaje a l@s esclav@s del franquismo / Omenaldia frankismoaren esklaboei
Puerto de Igal / Vidángoz (Navarra), 14 de junio de 2014
Igari / Bidankoze mendatea (Nafarroa), 2014, ekainak 14



Programa y participantes del acto de homenaje de 2014
2014ko ekitaldiko egitarau eta partehartzaileak



Omenaldia frankismoaren esklaboei

2014ko ekitaldiko egitarau eta partehartzaileak

(en castellano a continuación)

Hamar urte oroimen eta aldarrikapenak uztartzen.

2004ko ekainak 19an ospatu genuen lehen aldiz frankismoaren esklaboen omenezko ekitaldia. Egun ederra eta hunkigarria. Gatibu ohiak, senitartekoak, lan egiteko prest egon ziren hamarnaka lagun... hori guztia iragan estalia argitu, eta orainaldi askeago bat eraikitzeko. Buenos Aires, Ondarru, Oloron, Sartaguda, Cornellá, Bakio, Sevilla, Sestao, Madril zein Mirandako ahotsak, besteak beste, entzun ditugu Pirinioan, eta horiekin batera jarraitu dugu elkarlanean 10 urte hauetan.

“Zuen oroimenak, askatasuna” dio borrokalari antifaxistek irekitako errepidearen ondoan dagoen monolitoaren plakak, eta halaxe izan da. Gero eta ahulago dagoen 78ko erregimenaren aurkako protestetan lagun zaituztegu, demokrazian sakontzeko ekimenetan, herrien zein pertsonen eskubideen defentsan, eta modu berezian, langile behartu ohiak izanik, langileen eskubideen defentsan. Mundu osoko plaza eta kaleetan zabaltzen ari den errebolta giroan lagun zaituztegu, Brasiletik Greziara, Sol enparantzatik Durangoraino. Garai itxaropentsu eta interesgarriak ditugu aurrean, eta horietan lan egiteko lagun zaituztegu.

Egitaraua eta Parte-hartzaileak.

Ekitaldia eguerdiko 12:30etan hasiko da, Igari eta Bidankoze herriak lotzen dituen errepidearen mendatean, 1939 eta 1941 bitartean 2000 antifaxistek ireki zuten errepidearen ondoan, alegia. Ohi bezala, Juan Kruz Lakasta kazetariak zuzenduko du ekitaldia, eta irekiera Burlatako Joaldunekin batera egingen dugu.

Aurtengo omenaldian 10 urte hauetan omenaldian parte hartu duten prisionero edota haien emazteek aipamen berezia izanen dute, haien senitartekoen bidez. Horretarako omenaldian parte hartuko dute zonalde ezberdinetatik etorritako senitartekoez, Asturiasetik, Bizkaitik, Catalunyaetik eta Valentziatik. Edonola ere, ohorezko tokia izanen dute garai hartako errepresioa pairatu behar izan zuten pertsonak:

- ✓ Luis Ortiz Alfauk, borrokalari errepublikazalea. Bidankozen ez ezik, Gurseko kontzentrazio eremuan ere, Frantzian, gatibu egon zena. Gaur egun Bizkaiko Elikagaien Banketxean ematen ditu orduak, bolondres moduan.
- ✓ Margarita Lópezek, Errepide honetan gatibu lanean egon zen Mariano Crespo zenaren alarguna.
- ✓ Nafarroako frankismoaren beste biktima batek, Josefina Lambertok. Memoriaren aldeko langile sutsua dugu fusilatu baten (Vicente) alaba eta ahizpa (Maravillas) hau.

Horietaz gain, zonalde ezberdinetako elkarteek ere parte hartuko dute.

- ✓ Erbesteratuen oroimena lantzen duten bi elkarte etorriko zaizkigu Pirinioez bestaldetik: *Terres de Mémoire(s) et de Luttés* (Oloron St Marie) eta *Memoria y Exilio* (Saint Gaudens, Haute-Garonne) elkarteko lagunak, alegia.
- ✓ Aspaldi bezala, Catalunyako *Col·lectiu Republicà del Baix Llobregat*, elkarteko lagunak ere parte hartuko dute.
- ✓ Aurten aipamen berezia izango dute Andaluziako bortxazko langileek, 500 baino gehiago izan baitziren errepide honetan lan hartu zutenak. Hori dela eta gure artean izanen dira *Asociación Memoria Histórica y Justicia de Andalucía (AMHYJA)* elkarteko lagunak, eta horien artean Paqui Maqueda bere lehendakariordea, berriki Argentinan egon dena, frankismoaren krimenen aurkako kereilako partaide gisa.
- ✓ Gure ustez memoriaren aldeko lana tresna eraldatzailea da, gaurko gizartean eragiteko asmoz. Langile esklaboak izan ziren errepide hau ireki zutenak, eta horregatik gaurko lan munduan ematen diren injustizien aurka aritzen den elkarte bat gonbidatu dugu parte hartzera: *Iruñerriko Langabetu eta Prekarioen Asanblada*.

Ohi bezala, musikak ere izanen du bere garrantzia omenaldian, eta aurten Andaluzia aldeko ahots indartsua ere izanen dugu entzungai, **Lucía Socam** kantautorearena, alegia. Beraz gain, **Gorka Mediavilla** dantzariak, **Xanti Begiristain** txistulariak, **Kepa Bales** perkusionistak eta **Odei García de Azilu** soinu-joleak ere parte hartuko dute.

Ekitaldia bukatu bakoari autogestionatua egingo da Bidankozeko plazan. Antolatzaileek haragia, gazta, ogia eta ardoa jarriko dute.

Antolatzailea



Laguntzaileak

- Autobús de la Memoria / Oroimenaren Autobusa
- Ayuntamiento de Vidángoz / Bidankozeko Udala
- Instituto Gerónimo de Uztariz Institutua
- Quesos Ekia
- Quesos Larra

Homenaje a l@s esclav@s del franquismo

Programa y participantes en 2014

Diez años de memoria y reivindicación.

El 19 de junio de 2004 celebramos por primera vez el homenaje a las esclavas y esclavos del franquismo. Fue un día emocionante en el que participaron antiguos prisioneros, familiares de diversas procedencias... y decenas de personas que trabajaron de manera voluntaria. Desde entonces hemos seguido luchando por dar a conocer lo que sucedió hace ya 75, y también para construir un presente más justo y libre, tarea en la que nos han acompañado quienes desde Buenos Aires, Ondarru, Oloron, Sartaguda, Cornellá, Bakio, Sevilla, Sestao, Madrid, Miranda de Ebro y otros muchos lugares, han participado en este homenaje.

“Vuestra memoria, la libertad”, se puede leer en el monolito situado junto a la carretera abierta por luchadores antifascistas, y así ha sido. Nos habéis acompañado en las protestas contra un régimen, el del 78, cada vez más debilitado, en la exigencia de democracia real, en la defensa de los derechos de las personas y los pueblos, y de manera especial, habiendo trabajado como esclavos, en la defensa de los derechos de las y los trabajadores. Os hemos sentido en las calles y plazas de una revuelta cada más extendida por el mundo, desde Brasil hasta Grecia, desde la Puerta del Sol hasta Durango. Estamos en tiempos ilusionantes y esperanzadores, y vuestra memoria nos da fuerza.

Programa y participantes.

El acto empezará a las 12:30 en el alto de Igal – Vidángoz, junto a la carretera abierta entre 1939 y 1941 por más de 2.000 prisioneros antifascistas. Como en otras ocasiones, será presentado por el periodista Juan Kruz Lakasta, y comenzará al ritmo del grupo de Joaldunak de Burlada,

Este año haremos una mención especial, gracias a sus familiares, a los prisioneros y sus compañeras que en estos 10 años han participado en el homenaje, y para ello tomarán la palabra familiares llegados de diferentes zonas, como Asturias, Bizkaia, Catalunya o Valencia. De todos modos, como es habitual en este homenaje, el lugar central lo ocuparán las personas que tuvieron que sufrir la represión de aquellos años:

- ✓ Luis Ortiz Alfau, luchador y prisionero republicano, cautivo, además de en Vidángoz, en el campo de concentración de Gurs (Francia) y que prosigue en el trabajo social a través de su participación en el Banco de Alimentos de Bizkaia.
- ✓ Margarita López, viuda de Mariano Crespo, otro de los trabajadores forzados en esta carretera.
- ✓ Josefina Lamberto, hija de Vicente y hermana de Maravillas, fusilados en 1936 por los fascistas, y firme trabajadora por la memoria de las víctimas del franquismo.

Además de ellos, tomarán la palabra también miembros de las siguientes asociaciones:

- ✓ Dos colectivos que trabajan en torno a la memoria del exilio al otro lado del Pirineo: *Terres de Mémoire(s) et de Luttès* (Oloron St Marie) y *Memoria y Exilio* (Saint Gaudens, Haute-Garonne).
- ✓ *Col·lectiu Republicà del Baix Llobregat*, colectivo que lleva ya muchos años participando en este acto
- ✓ Este año habrá una mención especial a los más de 500 prisioneros andaluces que fueron castigados a trabajar en esta carretera. Con este motivo contaremos con la presencia de varias compañeras de la *Asociación Memoria Histórica y Justicia de Andalucía (AMHYJA)*, entre ellas su vicepresidenta Paqui Maqueda, que recientemente ha estado en Argentina como participante en la querrela contra los crímenes del franquismo.
- ✓ Entendemos la memoria como una herramienta de transformación de nuestra sociedad, y por eso, teniendo en cuenta que esta carretera fue abierta por trabajadores forzados, hemos invitado a participar este año a un colectivo que trabaja frente a las injusticias que hoy en día se sufren en el mundo laboral, la *Asamblea de Parados y Precarias de Iruñerria*.

También este año la música y la danza tendrán un papel importante en el homenaje. Desde Andalucía acudirá con su voz potente la cantautora Lucía Socam, y además de ella también intervendrán el dantzari Gorka Mediavilla, el txistulari Xanti Begiristain, el percusionista Kepa Bales y el acordeonista Odei García de Azilu.

Posteriormente se celebrará una comida autogestionada en el Frontón de Vidángoz, en la que la organización repartirá vino, pan, txurrasko y queso roncalés.

Organiza



Colaboran

- Autobús de la Memoria / Oroimenaren Autobusa
- Ayuntamiento de Vidángoz / Bidankozeko Udala
- Instituto Gerónimo de Uztariz Institutua
- Quesos Ekia
- Quesos Larra